



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2006ko maiatzaren 30a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:02 **AMAIERA-ORDUA:** 19:22

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solaberrieta, Asier Yeregi Campos, M^a Elena Legarra Alfaro, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Aurora Azkue Mujika amatasun arrazoiengatik.



Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko apirilaren 25eko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia egokitzeko hirigintza dokumentua 2006ko martxoaren 30eko data duen Kostetako Zuzendaritza Orokorrak bidalitako txostenaren arabera.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioak berraztertze txostena egokitzeko hirigintza dokumentua 2006ko maiatzaren 23ko data duen Kostetako Zuzendaritza Orokorrak bidalitako txostenaren arabera.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO APIRILAREN 25EKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2006ko apirilaren 25eko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA EGOKITZEKO HIRIGINTZA DOKUMENTUA 2006KO MARTXOAREN 30EKO DATA DUEN KOSTETAKO ZUZENDARITZA OROKORRAK BIDALITAKO TXOSTENAREN ARABERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko maiatzaren 29an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1. ONARTZEA, Orioko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia egokitzeko hirigintza dokumentua 2006ko martxoaren 30eko data duen Kostetako Zuzendaritza Orokorrak bidalitako txostenaren arabera.

2. IGORTZEA aipatu hirigintzako dokumentazioa, Udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiriarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde-antolamenduko Zuzendaritza Nagusira, tramite bereizleak egin ondoren, Diputatuen Kontseiluari Orioko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren behin betiko onarpena proposatzeko.

3 . ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE TXOSTENAREN EGOKITZEARI DAGOKION HIRIGINTZA DOKUMENTAZIOA, KOSTEN ZUZENDARITZA OROKORRAK 2006KO MAIATZAREN 23KO DATAREKIN LUZATUTA IGORRITAKO TXOSTENA ERANTZUNEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2006ko maiatzaren 29an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1. ONARTZEA, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuste txostenaren egokitzeari dagokion hirigintza dokumentazioa, Kosten Zuzendaritza Orokorrak 2006ko maiatzaren 23ko datarekin luzatuta igorritako txostenari erantzunez.

2. IGORTZEA aipatu hirigintzako dokumentazioa, Udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiriarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde-antolamenduko Zuzendaritza Nagusira, tramite bereizleak egin ondoren, Diputatuen Kontseiluari berrikuste txostenaren behin betiko onarpena eta Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen egokitzea proposatzeko.

4. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden zenbaitzuk hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATEA

IDAZKARIA